

Allí cantan vanidad
 los pueriles desaciertos
 y el ultraje,
 aquí dicen la verdad;
 ¡qué callando hablan los muertos
 su lenguaje!

Por eso escuchó mi mente
 al ir desde estas mansiones
 á la vida,
 la voz que dijo: «Detente,
 que en estas santas prisiones
 no hay salida.»

Aquí la voz del destino
 da misteriosa aldabada
 al decir:
 «Vas corriendo tu camino
 y á ver presto tu jornada
 concluir.»

A estas mansiones heladas
 (tu existencia concluida)
 te traerán:
 y estas tumbas tan calladas,
 que tras de esta hay otra vida
 te dirán.

ILLERRI-DONE EDO KANPO SANTUETAKO

OBIZDE TA GAIÑIZKIRA BATZUEK.¹

Fratres, orate pro nobis. (Ad. Thessal. 5.25).

Kristau anayak, otoitz
 Gure animakgatik,
 Guk ere eska dezagun
 Zeruan zuekgatik.



Memento homo quia pulvis es. (Eleizak.)

Lur zoitik illki dena, gero ere lurrera,
 Efeak iragan eta, biurtzen da berera...
 ¡O Iaongoiko, zeñen baitan baitegu esperantza,
 Arren surtako, emozu, penetatik librantza.

(Joanes Etcheb, or. 97, 1659.)

(1) Véase la primera parte de esta preciosa coleccion, publicada en la página 387 del tomo XIII de la EUSKAL-ERRIA.

Orate fratres. (Eleizak.)

Arren, Jaunak, gorputzari sepultura bezala,

Arimati ere emozu Paradisu zabala.

(Ex. Joanes Etcheb. p. 99.)



Dum tempus habemus, operemur bonum. (Ad. Gal. 6,10.)

Onak izanik, on egiteko

Degu denbora munduan:

On asko egiñak poztuko gaitu

Eriotzako orduan.



Canet enim luba, et mortui resurgent incorrupti. (Ad. Cor. I. 15,52.)

Ilta zeudenak, aingerubaren

Turrunta-soñu aitzian,

Piztuko dira, bizi-izatera

Betikotasun guzian.



Nunc tempus acceptabile. (Cor. II. 6,2.)

Oraiñ bizitzan, oraiñ sasoya,

Oraiñ, kristauak, denbora,

Obra onakiñ igo zaitezten

Gero zeruban goi-gora.



Sicut vita finis ita.

«Ondo bizi, bai, ondo iltzeko,»

Aitu oi dezu munduban:

Egi aundi au jarrai ezkeru,

Izango zera zeruban.



Dum tempus habemus, operemur bonum. (Ad. Gal. 6, 10.)

Nai badute betiko

Zeruba gizonak,

Denbora duten arte

Egiñ obra onak.



Non enim habemus hic manentem civitatem, sed futuram inquirimus.

(Ad. hebr. 13,14.)

Gure betiko erriya dago zerubetan;
¿Zertako ainbat zoratu lurreko gauzetan?



In novissimo die de terra surrecturus sum. (Job, 19,25.)

Lurpe ontatik jaiki bear naiz
Azken-egunaz batera,
Alkar berriro gorputz ta arima
Jesukristo-ren aurrera.



Et rurium circumdabor pelle mea, et in carne mea videbo Deum meum.

(Job. 19,26.)

Emen daukadan gorputz au berriz
Estaliko da larrubaz;
Ikusiko det nere Jainkoa
Begi ta aragi piztubaz.



Seminatur corpus animale, surget corpus spiritale. (Ad. cor. I. 15,44.)

Gorputz ustelkor au utzi-arren,
Nola lurrean aziya;
Izpirituzko gorputza gero
Jaiki bear du biziya.



Esto fidelis usque ad mortem, et dabo tibi coronam vitæ. (Apoc. 2,10.)

Ill arte segi leyalta-sunez
Obra on asko aurretzen,
Beti-betiko bizi ta koroiz
Zeruban eder-zaitezen.



Si commortui sumus, et convivemus. (Ad. Tim. II. 2, 11.)

Jardunik emen Jesus-en alde,
Griña gaiztoak ezitzen,
Berekiñ alkar, zeruban beti
Izango gera bizitzen.



Zuen adiñ samur ori
 Laster da iragana:
 Lore flako bat diruri
 Betan sunchitzen dena:
 Ikusiko dute sortzen,
 Eta geienez,
 Arras isturik erortzen
 Egun artan berean.

(Cantica Ispir. VI.)



Zure aita eta ama
 Gaiñoen biyotzak,
 Negarrez urtzen dauzka
 Zure eriotzak.
 Egiguzu zeruban,
 Gure aingeruchua,
 Zure onduan gure
 Atsegiñ lekua.

(Aur baten obian).



Æquales enim angelis sunt. (Luc. 20,36.)

Loracho guziz pollita
 Jayo ziñan mundura,
 Batayoak eman zizun
 Aingeruen ichura,
 Erruezaren usayak
 Jaso zaitu zerura.

(Aur baten obian.)



Translatus est in paradisum. (Eccli. 44, 16.)

Liriyo zuri pollit
 Bertute-usaiduna,
 Ona emen gaztecho
 Zerura-zaiguna.

(Gaztecho done baten obian.)

JOSÉ IGNAZIO ARANA-KOAK.

